


Amets Irastorza Ezkiaga

D maila • 2 saria

Kaixo! Amets Irastorza naiz. Hamahiru urte ditut eta La Salle ikastetxean ari naiz ikasten. Iaz ere saria irabazi nuen, baina lehenengo urtean bezain pozik jarri nintzen jakin nuenean. Aurten familiako laguna den Samburi buruz egin dut ipuina. Senegaldarra da eta orain Agurainen bizi da. Senegalen seme-alabak eta emaztea ditu, baina gu familiakoak bezala maite gaitu. Sambu egitan ere Baltaxar moduan ateratzen da Errege bezperan. Eskerrik asko zoriendu nauten guztiei eta, nola ez, beti animatu eta lagundu didaten irakasle eta lagunei!



SAMBU, AFRIKAKO ERREGEA

Bazen behin herri bat. Gurea bezalako herria. Euskal Herriko edozein herri. Bertan, beti gertatzen direnak gertatzen ziren. Jendea jaio eta hil. Erosketak egin, agurtu, amestu, maitemindu, haserretu... ez zen inola ere herri desberdina.

Herri horretan bazegoen bertako biztanleak ez bezalakoa zen pertsona bat, ordea. Etorkina zela esaten zuten batzuek. Maitasunez erotu eta burua galdu zuela beste batzuek, horregatik utzi zuela bere aberria. Desberdina zen. Nola ordea?

Sambuk irribarre egiten zien denei. Aspaldi Senegaletik etorria zen. Garai batean, artzain egona zen Piriniotan, baina aspaldiko kontuak ziren haiek. Herrian, taberna batean egiten zuen lan. Guztiekin atsegina izaten saiatzen zen. Eta bai, oso desberdina zen, besteak beste zuriak besterik ez zeuden herri hartan zegoen beltz bakarra baitzen.

Egun hartan egunero bezala goizean goiz jaiki zen Sambu. Bere etxea lagun marrokiar batekin elkarbanatzen zuen. Gosaldu ondoren, tabernara joan zen lanera. Pintxo goxo-goxoak prestatzen zituen bertan, sukaldean. Esan bezala, mundu guztiarekin hitz egiten zuen bere gaztelania traketsean. Hortz bete irribarre eskaintzen zien berarekin hitz egin nahi zuten guztiei. Irriaren atzean, ordea, askotan iluntasuna egon ohi da.

Gaua iristean triste sentitzen zen. Bere Senegaleko familiaz gogoratzen zen. Telefonoz deitzen zien batzuetan, baina ezin izaten zuen nahi zuen aldi oro egin, garestia baita. Bi urtean behin bisitan joaten zen sorterrira. Poztasunak betetzen zuen orduan. Han, ordea, Europarra deitzen zioten eta hemen Afrikarra. Askotan, inongoa ez zela iruditzen zitzaion.

Arratsalde hartan, berri on bat eman zioten: errege magoen zamalkadan Baltaxar erregea izan nahi ote zuen galdetu zion alkate jaunak. Berak baietz erantzun zion pentsatu ere egin gabe. Haurrekin egotea asko gustatzen zitzaion. Bere lau seme-alabekin ezin zuenez egon, gutxienez momentu haietan behintzat herriak maite zuela sentituko zuela pentsatu zuen.

Hurrengo egunak ilusioz bizi izan zituen. Jendeak azkar jakin zuen berria eta denek galdetzen zioten. Telefonoa hartu eta etxekoei ere deitu zien bideokonferentziaz:

- Errege izateko eskatu didate! -esan zien Sambuk Senegaldarrez.

Seme-alabek harrituta begiratzen zioten. Txikienak irribarre egin zion oraindik gogoan baitzuen azkena etorri zenean ekarri zion baloiaz. Seme gazteenarekin apenas bizi izana zen Sambu. Alaba zaharrenak erotu al zen galdetu zion. Samburen emazteak denak isilarazi zituen eta hurrengoan hobeto azalduko ziela esan behar izan zien Sambuk.

- Bi munduren artean harrapatua egotea bezala da Jassim! - esan zion marokoko bere lagunari.

Honek ongi ulertzen zuelakoaren begiradarekin erantzun zion. Hotz. Beti bezala. Ez zen oso hitzuna. Txukuna bai, nahiko txukuna zen. Hori nahikoa iruditzen zitzaion Samburi. Ez zuen besterik behar.

Sambu afaria egiten hasi zen. Tristura sentitzen zuen.

Hurrengo egunean, ordea, pozik altxatu zen arratsaldean zamalkadaren bilera zuelako eta bertan dena azalduko zietelako. Urduri zegoen, baina protagonista sentitzen zen.

Azkenean eguna iritsi zen eta lanean jai hartu zuen zamalkadan ateratzeko. Eguneko soldata ez kobratzeak min egingo zion. Baina zer arraiio! Baltaxar erregeak hainbeste merezi zuen! Denen erdigune bihurtu zen. Jantzi zutenean malkotxo bat atera zitzaion. Jantzia gorria zen eta oso polita, originala. Buruan zapi gorria zuen eta zapian harri bitxi bat zuen.

Plazara iritsi zenean haur guztiak ilaran jarri eta opariak eskatzen hasi ziren. Denek nahi zuten zerbait. Tableta nahi ez zuenak, ordenagailua nahi zuen, edo bizikleta, panpinak... Gustuko zuen umeak bere ondoan pozik ikustea. Bere seme-alabak etorri zitzaizkion burura. Senegalen ere denek nahi izaten dute zerbait. Bateko eta besteko haurrak ez dira hain desberdinak!

Iluntzeko zamalkadan dena majikoa izan zen, goxoki jakas nonnahi, irribarreak, denek Baltaxarren izena esanez... eta Sambuk irribarrez jendea agurtuz. Amaitu zenean, ordea, jantziak kendu eta etxeratzean inoiz baino bakartiago sentitu zuen bere burua.

Bere buruari sentitzen zuenaren inguruan galdetzeko zegoenean, telefono deia ikusi zuen. Senegaletik deitzen zioten. Arduraturik zeuzkan nonbait.

- Errege egin al zaituzte jada, aita?

- Bai, gaur.

- Eta bihar? Bihar ez al zara zurien errege?

- Ez, egun bateko gauza da.

Samburi malkoa atera zitzaion. Eskerrak oraingo honetan bideokonferentzia ez zen.

- Lasai, aita, zu beti izango zara gure Afrikako erregea!

Eta orduan, Sambuk beste malko bat sentitu zuen aurpegian behera. Hala ere, poztasunezkoa zen hau. Bai, horregatik bizi zen desberdina zen herrian... hori zen arrazoia.